



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

J Azbarren eremuko 1. egikaritze unitatearen birpartzelazio proiektua behin betiko onartzea.

Basauriko alkateak, 2024ko apirilaren 12an, 1470/2024 Dekretua eman du Basauriko HAPOk J Azbarren eremuko 1. Egikaritze Unitatea Birpartzelatzeko Proiektuari dago-kionez, eta honako hau xedatzen du:

Lehenengoa: J Azbarren Eremuko 1. Egikaritze Unitatearen Birpartzelazio Proiektua behin betiko onartzea.

Bigarrena: Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki-oholean eta egunkari batean argitaratzea. Era berean, Udalaren egoitza elektroinikoan eskuragarri egongo da (<https://www.basauri.eus>).

Hirugarrena: Interesatuei honen berri ematea.

Laugarrena: erabakia administrazio-bidean irmoa denean, erabakia hartu duen organoak bere erabakien aktetarako ezarritako solemnitateak eta betekizunak jasotzen dituen dokumentua emango du, abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuaren bidez onartutako Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen Garapen eta Aplikaziorako Hirigintza Kudeaketari buruzko Erregelamenduaren 113.2 artikulua adierazten duen bezala, eta Jabetza Erregistroan inskribatuko da.

Jendaurrean jartzen da horren berri emateko, eta jakinarazten da administrazio bide agortzen duen ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko dela, jakinarazpenetik hasi eta hilabeteko epean, ezarri duen organoaren aurrean, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluekin. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa ere aurkeztu ahalko da bi hilabeteko epean, eskumeneko jurisdikzio-organoren aurrean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera.

Basaurin, 2024ko apirilaren 15ean.—Alkatea